

Donostia, 2019ko urriaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

IDIAKEZ KALEKO 6.EKO ERAIKINAREN ENKANTEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Idiakez kaleko 6.eko eraikinaren enkanteari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko uztailaren 31n, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren baimenarekin, Idiakez kaleko 6. zenbakian den eraikinaren enkante publikoa egiteko deialdia onartu zen.

Lehen ere atera zuten enkantera eraikin hori, eta saldu gabe geratu zen.

Horiek horrela direla, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio enkantea berriz ere hutsik geratuz gero, negoziazio bat ireki dezala Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarekin, Idiakez kaleko 6. zenbakian den eraikinak bihar-etzi izango lituzkeen erabilerak hirian kudeatzeko modua izan dadin.

Izpta.: Aitzole Araneta,

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.*

